

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Xinfo Iparragirre Intxaurrondo

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Izotzalde auzoko Bulatzi baserrian jaioa, bera da 8 senidetan zaharrena. Mutikotan solfeoa eta soinu handia ikasten ibili zen, lehenbizi herrian Jakakortajarenarekin eta geroago Tolosan, Tarragonarekin. Hainbat herritan ibilia da soinua jotzen. 24-25 urterekin Kalparsoron, Eldua auzoko paper-fabrian, hasi zen lanean. Han 3-4 urtez egin ostean atzera etxera etorri zen, baserriko lanetan aritzeko. Ezkondu ostean berriz sartu zen paper-fabrian, Arrosin. Hura itxi zenean Leitzara joan zen Sarrio lantegira, baina han 7 urte inguru egin zituenean Berrobiko lantegira bidali zuten, jendea behar baitzuten han.

Zintak

BRS-020

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-18
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

BRS-021

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-18
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Soinua jotzen irakatsi zioten maisuak

- **Erref:** BRS-020/001
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Juanito Kortajarenak erakutsi zion solfeoa. Haren anaia, Txomin Kortajarena, apaiza zen, Argentinan urte askoan egondakoa, han erlezaintzarekin hobekuntza handia egindakoa; erretiroa hartu zuenean itzuli zen Euskal Herrira. Jose Tarragona ere maisu izan zuen.</p>

2. Han eta hemen soinua jotzen

- **Erref:** BRS-020/002
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:03:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Lehen igandero Berastegin festa izaten zen eta eta Xinfo soinua jotzen ibiltzen zen bertan. Inguruko herrietara ere joaten zen noizean behin soinua jotzera.</p>

3. Baserritik kanpo lan egiteko pausoa

- **Erref:** BRS-020/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:08:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

Paper-fabrika aritu izan da lanean. Gazte zela, 4-5 urte pasa zituen Kalparsoron lanean, baina aitak nahiago zuen baserrian lan egiten gelditzea, eta fabrika utzi egin zuen. Gerora, ordean, ezkondu zenean, Sarrion sartu zen lanean.

4. Eskupeko onenak Donostian

- **Erref:** BRS-020/007
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:08:31. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Paper-fabrikan zebilela, eskaerak banatzeko furgoneta bat zegoen, eta noizean behin hartan laguntzera joaten zen. Donostiara Mirakruz aldera joatea tokatzen zenean, ordea, txoferra bera bakarrik joaten zen, eskupeko onak ematen baitzituzten han.

Transkripzioa

- Bazan txofer zahar bat, kamion... Forrak, garai hartan Forrak zien kamionak. Ta Forra batekin ibiltzen zan; ta pedido gutxi xamar askotan ta hola ibiltzen zan, oain'e hola dabilte, okerrago oain, berriz. Eta jun ordu bitan lanea ta "bueno, joan hai kamionea hi txoferrai laguntzea!", ta igual Pasaira o papera eman ber izaten zun, eta puertora igual noabaitteko; ta igual hiru-lau fardo paper ta hola aittona hari laguntzea behin baiño gehiagotan, bai. Eta geo izaten zittun, Kalparsoro zan nausia, Kalparsoro, ta haren ezaunek eta hor Mirakruz alden ta txaletatan ta haintzako paketen batzuk ematen zittun; ta beti bea joaten zan paketek ematea, sekulan ez giñun bialtzen gu laguntzaille, klaro, propinak eta izaten baitzien. Ta beretzako.

5. Gurpilik gabe aurrera

- **Erref:** BRS-020/009
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:12:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Behin furgonetarekin zihoazela, harri baten kontra txoke egin eta gurpil bat galdu zuten. Frenatu arte, ordea, ez ziren konturatu galeraz.</p>

Transkripzioa

- Eta behin baten gertatu zaiu: hamarrak laurden gutxitan abittu gea handik kamionakin, bea txofer. Ta hor Berrobin ermitte bada San Sebastian, ta San Sebastian handiken behera ai zien obran kamioan, ta baztarretiken zanka o ebakitzen eta harri-pillek eta zeuden kamion. Ta badator sekulako belozidaden ta jotzen du harrin bat eo ta sekulako potek atea zittun kamionak eta aurea [...] zan. Ordun hue, ta pentsa zazu errueda galdu zun han: aurreko ezkerreko rueda galdu eta hala're handiken Kalparsoroa ze eongo die? Zortzirehun beatzirehun metro, eta ezta kontuatu're. Ta frenun danborran gaiñien etorri zan kamiona, ezkerreko errueda galduta. Ta horrea aillatu gea, ta geo hor barrua sartu behar patiora, eta porteroa etorri zan atarik jaikitzea. Ta klaro, bolantei geo ezin eman geldittu zanen, han belozidade hartan ekarri zun, baiño geldittu zunen ezin eman bolantei eta "pintxazo zerbaitte badik [...] honek". Eta porteroa zaharra zan Elduaingo bat, Joxe, ta "pintxazoa nola izango dik, ba! Errueda falta dik eta!"

6. Fabrikan lanean han eta hemen

- **Erref:** BRS-020/011
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:12:53. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

Kalparsoron lan egiteari utzi, etxera itzuli, baina gerora berriro hasi zen kanpoan lanean Arrosin. Arrosi itxi egin zuten, baina, eta Leitzara eraman zituzten langileak. Geroago, aukera izan zutenean, Berrobira joan ziren lanera Berastegiko langile gehienak. Ordutik fabrikak zer bilakaera izan duen azaltzen du.

7. Soinuarekin dantza lotua ezin

- **Erref:** BRS-020/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:20:03. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Lehen, soinua jotzen zuenean, tabernetan kanta eta kanpoan jendeak dantza soltea egiten zuen. Dantza lotua debekatuta zegoen eta hartan harrapatuz gero, kongregaziotik bidali egiten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Eta, adibidez, zu soiñuakin ta lagundu ta kantatu izan du jendiak, hola bertsuak eta...?

- Beno, ordun izaten zan dantza, dantza sueltoa. Eta plazatan ta ba dantza sueltoa jotzen zan gehiena. Geo tabernan, bai, kantun ta hola lagunduz ta're bai, tabernatan ta, taberna ezkeo ez da, baiño gaiñeakon ta sueltoa bakarra gaiñea. Ez dena pekatue zan ta. Agarraua pekatue zan, pentsa zazu. Eta emakumek'e pues Marian alabak eo kongregazioa izaten zan ta mutillena San Luis, eta bodan baten eo dantzan ibilli ziela, dantza lotun emakumek eta kongregaziotik atea, ta zinte izaten zuen jauna hartzea joateko, ta zinte hoi kendu ta... Orduko apaizak kriminalak zien.

8. Euskararen aldaketak herritik herrira

- **Erref:** BRS-020/017
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:22:30. **Bukatu:** 00:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara herritik herrira nola aldatzen den azaltzen du. Euskara galtzen ari da zenbait herritan.

9. Flora, maistra ona

- **Erref:** BRS-020/020
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:28:31. **Bukatu:** 00:29:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Behin maistra ona izan zuten eta beste urte guztietan baino gehiago ikasi zuten harekin negu batean. Errespetua zioten, ondo ikasten zuten eta gustura joaten ziren eskolara.</p>

Transkripzioa

- Gero negu baten ibili giñen, hemengo alaba zan ta geo illoba're bai bazun maistrak zienak, plazaik gabe zeen, politikangatik plaza kenduta. Ta hasi zien eskola ematen partikular, ta kuadrille osoa, ta gaiñeako lau urtetan baiño gehio ikasi gendun negu baten harekin. Maistra ona zan, jo, eakusteko ta balio zuna, ta errespetoa ta harekin bai gustoa joaten giñen. Beste etortzen zien bat edo beste maixu eta belaxe alde itten zuen, ta eakusteko batez, makille eskun beti, ta zipli-zapla. Ta osea, haita baiño gustoago joaten giñen ta errespeto haundigo zan emakume hoi, Flora; baiño bai eakutsi're.

10. Maisu onak eta bera gaixo

- **Erref:** BRS-020/021
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:29:31. **Bukatu:** 00:32:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>12 urte zituela hankatik operatu behar izan zuten eta urtebete gaizki pasa zuen. Garai horretan Iruñeko maisu ona egon zen eskolan. Flora ere maistra ona zen eta etxean klase partikularrak ematen zituen.</p>

Transkripzioa

- Geo, pues ni hamabi urte nittula, gaixo geldittu nintzen, hezurre daiñatu, hankeko hezurre, eta operazio txarra in ziaten. Garai hartan ezen adelantoik ez, penizilinaik ez zan arten ta; "guerra europea" ai zula zan... beste, bai, milla ta beatziehuneko berrogeita laugarren urten. Ta urtebete pasa nun gaizki ta orduntxe zan maixu politte hemen, Pamplonako bat, Jose del Hoyo, ta bastante saiatzen zana. Ta ni gutxi ibili nintzen harekin, pena earra eukitzen det, baiña gutxi ibili nintzen. Gaiñekoan ikasteko

motiboik ezer ez.

- Bestela Flora horrekin ikasi zendun gehiago orduan.
- Florakin, ikasi genduna Florakin ikasi gendun.
- Ta esan dezu lehen kenduta zeukala titulua, ez?
- Titulue bazun.
- Nazionalista zalako?
- Nazionalista zalako plazaik gabe geatuta zegon, eta bere anaia zegon hemen sekretario: ta hoik, berriz, frankista amorratuk zien, ta hue nazionalista zalako plazarik gabe geratu ber. Ta Etxabe, Etxabetarrak. Ta, pues, holaxe.
- Ta bere etxan ematen zittun klasek?
- Bai, bere etxan. Oain farmazia dagon etxan goien bizi zien ta han ematen zun eskola. Ta ba bi habitazio mahiekin ta banketakin jarri ta dena beteta. Geo illoba ere bazun, Amalia o... Gaztegoa zan baiño ez zan hola diferentzi haundie... ez dakit, illoba esaten zun zala ta hue ere titulua zuna. Ta bik aitzen zien, gaztegoakin ta zaharragoakin ta. Baiño joe, hala pues haik harrapatu izan bagiñun guk beatzi-hamar urtetan, eo zortzitan eo, ta bi o hiru urten ikasiko gendun zerbait geren kaskagorren. Baiño, ezer ez.
- Eta ordaindu itxen zenduezen klase horrek? Ordaindu itxen zan? Florari ordaindu egiten zenioten?
- Bai, ordaindu itten gendun. Uste det hillen hillen bostna euro eo... ordaintzen Flora horri. Oain bestek'e zeozer eman itten zitzaien ta zeozer laguntzen zitzaien maixuei, baiño balio ez zuenak zien asko.

11. Eskolan zer eta nola ikasten zuten

- **Erref:** BRS-020/023
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:32:48. **Bukatu:** 00:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Gaztelaniaz nola edo hala moldatzen ziren, baina eskolan dena gaztelaniaz egitera behartzen zituzten, baita Flora maistra onak ere. Florarekin zer ikasten zuten azaltzen du. Neskak eta mutilak denak batera aritzen ziren.

12. Pianotik akordeoira

- **Erref:** BRS-020/025
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:34:33. **Bukatu:** 00:35:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

15 urterekin hasi zen ikasten solfeoa. Hasiera batean pianoa jotzen hasi zen, geroago akordeoia.

13. Bere eskutatik pasatako akordeoien historia

- **Erref:** BRS-020/027
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:36:39. **Bukatu:** 00:38:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Akordeoi bat baino gehiago izandakoa da eta non erosi eta saldu zituen azaltzen du.

14. Piezak jotzen ikasten

- **Erref:** BRS-020/028
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:38:21. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

18 urte ingururekin Tarragonarekin ibili zen ikasten, baina ez zuen denbora asko eman han. Partiturak Donostiatik ekartzen zituen eta buruz ikasi arte aritzen zen jotzen. Plazan jotzen zuenean buruz jotzen zuen eta Felix Azpiroz txistulariarekin ondo konpontzen zen partiturak konpartitzeko. Pieza batzuk besteak baino hobeto jotzen zituen, baina plazan inork ez zion ezer esaten, dantzarako nahikoa baitzeukaten.

15. Batetik bestera soinua jotzen

- **Erref:** BRS-020/029
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:40:47. **Bukatu:** 00:42:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Soinu-jotzaileei udalak ordaintzen zien herrian; beste leku batzuetan, ordea, diru-bilketak egiten ziren. Leku ugaritan eta hainbat adiskiderekin soinua jotzen ibilia da.

16. Soinua jotzetik bizitzea zaila

- **Erref:** BRS-020/030
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:42:31. **Bukatu:** 00:45:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Beste soinu-jotzaile batzuei buruz hitz egiten du. Soinua jotzetik bizitzea zaila da eta horregatik beste lan bat bilatu behar izan zuten gehienek. Gutxi izan dira soinua jotzetik bizi izan direnak. Soinu-jotzaileen artean lagundu egiten zioten elkarri.

17. Herriaren arabera dantza bat edo beste

- **Erref:** BRS-020/031
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:45:29. **Bukatu:** 00:47:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Herritik herrira aldea egoten zen dantza egiteko moduan: batzuetan libre zen dantza lotua egitea, baina besteetan ez. Ezkontzetan ere ez zen libre dantza lotua.

18. Soinua jotzera kanpora joaten zenean

- **Erref:** BRS-020/032
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:51:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Askotan norabait soinua jotzera joan eta bertan gelditzen zen lotan. Orduko ordutegi, otordu eta lanak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Otordu haietako batzuetan apaiz ugari elkartzen ziren eta eztabaidan aritzen ziren erlijioaren gainean.</p>

19. Gorrotoak eta ezinikusiak gerran azaleratu

- **Erref:** BRS-020/034
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:51:16. **Bukatu:** 00:54:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerrako oroitzapen batzuk gordetzen ditu. Osaba bat Hernanin fusilatu zuten eta aita kartzelan egon zen. Gerran, ika-mika handiak zeuden nazionalista eta karlisten artean, eta beren etxean hiru auzi izan zituzten. Berastegin etxeratze-agindua zegoen gaueko bederatziatarako: gizon bati herritar karlistek tiro egin zioten bederatziak pasata kalean egoteagatik. Gorroto eta ezinikusi handiak zeuden orduan.

Transkripzioa

- Ta zuk gerrako konturik eta ez zara... txikixa ziñan zu, ez? Txikia ziñan gerra hasi zanian.
- Lau urte gerra hasi zanen.
- Gutxi akordatuko zara, ez? Gerrako konturik...
- Akordatu zeozer itten naiz, bai. Ta etxen'e denak ixilka ta geo osaba bat'e afusilatu ziguen hor Hernanin. Afusilatu zuen, bai. Ez dakit, Donostitik zetorrela o, trenen zetorrela o, detenittu ta eraman zuela ta akau. Ta geo aitte zana're kartzelan eon zan ta, bai, bastante; geo garai hartan gaiñea gure etxekoak nazionalistak izandu zien, ta hemen pike haundie zan karlistek eta nazionalistekin. Geo terrenuakin ta're pleituk eta garai hartan zebiltzen, ta gure etxen'e hiru pleitu jokatu zittuen terrenuak udalanak ziala ta eskriturak eta denak euki ta batzuk udalai entregatu. Ta bestei'e kendu in nahi zizkien [...] ta hemen nahaspilla haundik ibili zien, nahaspilla haundik ibili zien herri hontan.
- Hemen gehienak zer zian, karlistak edo nazionalistak, o erdi ta erdi?
- Karlistak gehixeo izango zien. Geo alkatea're hemen auzoan zan ta jende asko engaiñatu zun uste det harek: pikaroa zan ta karlista zan ta asko engaiñatu zun harek ere. Hemen gauze txarrak'e bai bastante in zittuen. Taberna etorri ta beatzitako erretiratzeko "toque de queda" o hoi eon ber zun, ta ni ez naiz goatzen, lau urte nittun ta ez naiz asko goatzen hoi, baiño etxea zihoala beatzik joa zuenen, tiroz jota. Bertakoak e? Bertakoak. Ta hoi errotarie, hor Arrosin oain'e famili bizi da. Bueno, harek ez du zerikusirik hoik famili hoik, geroztik etorrik die. Baiño ta oilloak eukitzen omen zittun errotan zakukin berrogei kilo, konparazio baten, ta hiru o lau kilo laka esaten zitzaion, ordaiñe kendu itten zun artoai. Patu ez zan in ber izaten, artoakin.
- Bai, berantzako hartzen zun zati bat.
- Bai, ta oillo hoik eukitzen zittun, oillo-saille ta geo oillo hoik denak jan omen zizkien rekete o karliste hoik. Ta holako kasok paseak'e bai hemen, kaso tristek.
- Bai, herri txiki baterako gaiñea, danak ezagunak eta, ez?
- Bai, bai ta gorrotoa ta zikiña asko ibili zan hemen.

20. Gerraostean goserik ez pasatzeko egindakoak

- **Erref:** BRS-020/035
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:54:08. **Bukatu:** 00:56:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gerraostean goserik ez zuten pasa, baina olioarekin arazoak izaten zituzten. Haren orde, seboa erabiltzen zuten, baina hori ere jende askok bilatzen zuenez, urria zen. Errotara ezkutuan joaten zen etxeko artoa jan ahal izateko. Txerria ere hiltzen zenez, goserik ez zuten pasa. Kaletik jendea gustura joaten zen baserrietara lanera zerbait jatearen truke.</p>

21. Txerria guardia zibilengandik ezkututzen

- **Erref:** BRS-020/036
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:56:22. **Bukatu:** 00:57:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Behin txerria hiltzen ari zirela, guardia zibila gertu zegoela ikusita, txerria ezkutatu zuten. Izan ere, txerri bakarra hil zitekeen urtean, eta hura ere baimenarekin. Guardia zibilak ez ziren asko ibiltzen etxeak miatzen.</p>

22. Guardia zibilek etxeak miatzen zituztenekoa

- **Erref:** BRS-020/037
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:57:58. **Bukatu:** 01:00:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Behin guardia zibilak etxez etxe ibili ziren miatzen, kontsul alemana Donostian bahitu zutenean. Garai hartan izan ziren Burgosko epaiketak. ETako kideak bilatzeko ere, etxeak miatzen ibili izan dira guardia zibilak Berastegin. Guardia zibilak etxera etortzen zirenean, firmatu egin behar izaten zuten baserritarrek, frogatu ahal izateko guardia zibilak etorri zirela. Batzuetan, arrautza eske ere etortzen ziren.

23. Guardia zibilen lan-baldintzak

- **Erref:** BRS-020/038
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:00:57. **Bukatu:** 01:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Guardia zibilak arrautza eske etortzen ziren batzuetan. Guardia zibilen lan-baldintzei buruz hitz egiten du: lehen oinez ibiltzen ziren, kuartela Leitza zeukaten, atentatu pare bat izan zituzten...

24. Paper-fabrikako lana eta haren ondorioak

- **Erref:** BRS-021/002
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:01:54. **Bukatu:** 00:04:13

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

24-25 urterekin Kalparsoron hasi zen lanean. Pastatan egiten zuen lan eta lan-prozesua nolakoa zen azaltzen du. Lehen fabrikako zikinkeria errekaratzen botatzen zen eta kiratsa egoten zen Tolosa inguruan.

25. Arrosiko lanaren nondik norakoak

- **Erref:** BRS-021/004
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:07:57

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Kalparsoron lan egiteari utzi ostean, Arrosira joan zen lanera. Han zer lan egiten zizuten azaltzen du. Era askotako paperak sortzen zituzten eta Leitzara bidaltzen zituzten.

26. Sarrioren indarra

- **Erref:** BRS-021/006
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:11:07

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Sarriok Uranga eta Arroshi erosi zituen 1970 inguruan; orduan indarra hartu zuen, eta fabrika horri esker, Leitza inguru guztian lana egon izan da. Langileak autobusez etortzen ziren inguruko herrietatik. Adin guztietako pertsonen ematen zitzaion lan.

27. Leitza eta Berastegiko fabriken arteko aldeak

- **Erref:** BRS-021/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:07. **Bukatu:** 00:12:52

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Leitzakoa fabrika modernoa zen, baina diru gutxiago irabazten zuten Nafarroan zegoelako fabrika. Aukera izan zutenean, Berastegira joan ziren lanera langile asko eta zer-nolako lan-baldintzak izaten zituzten azaltzen du. 63 urterekin hartu zuen Xinfok erretiroa.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com